

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. ERRETIRO-PENTSIOPEN ERREFORMEK BERAIEN HELBURUAK LORTZEN ARI DIRA
2. EGUN ZATIKO ENPLEGUAREN IGOERA HANDIA
3. LANBIDEK DUINTASUN EZAZ TRATATZEN DITU GENERO INDARKERIAREN BILTIMA DIREN LANBIDEKO ERABILTZAILEAK
4. POBREZIA GORA DOA EAEn, RGIa GEROZ ETA PERTSONA GUTXIAGOK JASOTZEN DUTEN BITARTEAN
5. EBtik KANPOKO ATZERRITARREN ERDIA BAINO GEHIAGO BAZTERKETA SOZIAL EGOERAN DAGO
6. PROPOSAMENA: HERRIEN EPAITEGI IRAUNKORRA

**1. ERRETIRO-PENTSIOPEN ERREFORMEK
BERAIEN HELBURUAK LORTZEN ARI DIRA**

Azken urteetan erretiro-pentsioek erreforma handiak jasan dituzte hauek murrizteko helburuarekin. 2011an Zapateroren Gobernuak murrizketak eta erreforma handiak egin zituen, eta 2013an Rajoyren Gobernuak ildo beretik jarraitu zuen. Aldaketa hauek guztiek helburu berbera izan dute, erretiro-pentsio publikoen baldintzak okertzea.

Gauzak horrela, erreforma hauetan parte hartu dutenak (CEOE, UGT eta CCOO, PSOE eta PPz gain), pozik egon daitezke, beraien xedea lortu baitute: pentsioak murriztea. PNV-k eta UPN-k ere zer ospatua izango dute, 2011ko erreforma onartzeko beraien abstentzioa beharrezkoa izan baitzen.

Erreforma hau, 2011koa, PSOEren Gobernuak patronalarekin, UGT eta CCOOekin adostu zuen. Eta honek jasotzen zituen aldaketa nagusiak ondorengoak dira: erretiroa 65 urteetatik 67ra atzeratu, pentsioa kalkulatzeko oinarria 15 urteetatik 25era igo, erretiroaren %100 jasotzeko kotizatu beharreko urteak 37ra igo, aurre-jubilazioen adina 63 urtetara igo, eta "jasangarritasun faktorea" delakoa ezarri zen. Hau pentsioak automatikoki murrizteko mekanismo bat da, gero eta urte gehiago biziko garelakoan, pentsioak doitu behar direlako ideiarekin.

2013an, Partidu Popularraren Gobernuak egindako erreformak neurri hauek ezarri zituen: "jasangarritasun faktorearen" baldintzak zehaztu zituen, eta pentsioak KPIaren arabera eguneratzeko betebeharra ezabatu zen, matematika formula konplexu bat ezarri,

gehienez KPIa gehi %0,25a igoko duena eta gutxienez %0,25a.

Orain jakitera eman denez 2015ean erretiro-pentsioak gutxiengoa igoko dira, hau da, %0,25. 2014an gertatu den moduan.

Eta okerrena da konstituzioaren 135. artikulua erreformaren jarraipena egiteko (zor publikoa ordaintzea lehenestea ezartzen duena) sortutako organo ikuskatzaileak esan duenez, pentsioek gutxienezko %0,25eko igoera izango dute 2020ra arte. Honek pentsio bat jasotzen duten pertsonen eros-ahalmena asko jaistea suposatuko du.

Gainera organo ikuskatzaile honek Gobernuak egindako kalkuluak berrikusi ditu, eta PP-ren Gobernuak pentsio publikoen sistemaren diru sarreraren inguruko kalkuluak ez direla fidagarriak ondorioztatu du.

Honek suposatzen du diru-sarreraren aurreikuspenak betetzen ez badira, are eta murrizketa gehiago egingo dituztela.

Ondorioa garbi dago, erretiroa aldatzeko hartutako neurriak beraien helburuak betetzen ari dira, murrizketak egin eta pentsio sistema publikoa barrutik jan.

**2. EGUN ZATIKO ENPLEGUAREN IGOERA
HANDIA**

2013ko Lan Merkatuaren Zentsoak (LMZ), berriki Eusko Jaurlaritzak publikatuak, EAEn ematen ari den egun zatiko enpleguaren gorakada handia erakusten du.

LMZren arabera, 2013an soldatapeko populazioaren %16,6 zegoen egun zatiko kontratuarekin. Lan mota hauek irudikatzen dituen portzentaiaren gorakada etengabekoa da. 2001ean soldatapeko populazioaren %7,7 suposatzen zuen. 2011n %14,4koa zen, bi urte beranduago baino 2,2 puntu gutxiago.

Datuek erakusten dute egun zatiko enpleguaren igoera etengabekoa dela, bai enplegua sortzen den garaian baita lanpostuen suntsiketa handia den garaian ere. EAEn 2007tik 80.000 soldatapeko lanpostu suntsitu dira. Baina epe berean egun zatiko kontratua duten soldatapeko pertsonak ia 30.000 gehiago dira. Horrela, 2007tik 2013ra doazen 6 urteetan egun osoko kontratua zuten soldatapeko enpleguak ia 110.000 gutxiago dira (%15,2).

**EGUN ZATIKO KONTRATUA DUEN
SOLDATAPEKO
POPULAZIOA %. EAE. 2001-2013**

2001	2005	2007	2009	2011	2013
7,7	9,9	11,3	12,1	14,4	16,6

Iturria: CMT 2013, Eusko Jaurlaritza.

Egun zatiko enpleguaren eta enplegu mota honek soldatapeko enplegu guztian duen pisuaren igoerak, enplegua gero eta prekarioagoa denaren adierazle bat da. Noski, egun zatikako enpleguak soldata baxuagoa suposatzen du. Enpresarien erabakien esku dagoen flexibilitate laboral handiagoa eta prestazio sozial txikiagoak suposatzen ditu baita ere. Gobernuen politikak (besteak beste lan erreformek) egun zatiko enplegua bultzatzea izan dute beraien aktuazio ildoen artean.

LMZk egun zatiko enpleguaren datuak ez ditu generoaren arabera banatuta ematen, ondorioz, emakumeek sufritzen duten begibistako diskriminazioa ikustaraztea galarazten du. Egundatik kontratuen gehiengo handia emakumeei egiten zaie, eta beharrezkoa litzateke LMZk, eta berau burutzen duen Eusko Jaurlaritzak, honen kontzientzia hartzea.

3. LANBIDEK DUINTASUN EZAZ TRATATZEN DITU GENERO INDARKERIAREN BILTIMA DIREN LANBIDEKO ERABILTZAILAK

ELAk, beste gizarte eragile batzuekin batera,


Lanbidek legearen arabekoak ez diren interpretazioak egiten dituela salatu du, politika honen helburu nagusia prestazio sozialen gastuaren murrizketa izanik. Oraingoak Bizkaiko eragile sozialak izan dira genero indarkeria sufritzen duten emakumeek lanbiden jasotzen duten tratu ez duina salatu dutenak. Salaketa honen arabera, emakume hauei errua leporatu eta fisikoki prestatuta ez dagoen espazio fisiko batean berain intimitatea azaltzera behartzen zaie. Familiaren babesa zigortzen dute, pertsonen bizitza pribatuari dagozkien erabakiak bereganatuz eta emakume hauek tutoritza beharra duten adin txikiko bihurtuz. Prestazio publikoen saretik at uzten dira pertsona asko berain intimitatea urratuz eta beraien bizitza fiskalizatuz. Azken finean, zerbitzueen erabiltzaileak eskubiderik gabeko pertsona bezala tratatzen dira.

Praktika hauekin, prestazioak jasotzen dituzten emakumeak indarkeria egoerak jasatera behartuta sentitzen dira ez dutelako beste alternatibarik ikusten, eta protagonista nagusi diren prekaritate egoeratik ezin irtenda aurkitzen dira. Beste batzuen ardurapean jarraitzea behartzen zaie. Kartzela bat izango balitz bezala, gizartean duten lekua inposatzen zaie, alternatibarik gabe, estigmatizatuta eta berdin jarraitzea kondenatuta.

4. POBREZIA GORA DOA EAEn, RGIa GEROZ ETA PERTSONA GUTXIAGOK JASOTZEN DUTEN BITARTEAN

2014ko Behar Sozialen EAeko inkestaren arabera, 2012 eta 2014 bitartean pobrezia arrisku egoeran daudenen kopuruak gora egin du (inkesta honek pobrezia arriskua deritzo oinarritzko beharrei aurre egiteko familiek nahikoa dirusarrera ez izateari). 2008an populazioaren %5,7ari eragiten zion, 2014an berriz %8,2ari. Ongizategabezia izateko arriskuari dagokionez (ongizategabeziak, inkesta honen arabera, EAEn bezalako gizarte

batean espero den gutxieneko ongizate maila mantentzeko gastu beharrari egiten dio erreferentzia), 2008tik gora egin du, orduan %16,4koa zen arriskua, 2014ean gora egin du %21,9ra iritsiz.



2008an EAEn 89.706 pertsona zeuden benetako pobrezia egoeran, populazio osoaren %4,2 (inkestaren arabera, benetako pobrezia egoerak epe ertain eta luzera bizi baldintza onargarriak kontsolidatzeko gaitasun faltari egiten dio erreferentzia). Egoera honetan dauden pertsonak 2014an 127.399 dira, populazioaren %5,9. Benetako pobrezian dauden pertsonen kopurua %42 hazi da.

Gainera, aberastasunaren banaketan desberdintasunak handitzen doaz. Hobekien bizi den populazio osoaren %50ak, 2008an zuen per kapita dirusarreraren batez bestekoa baino altuagoa du 2014an. Gutxiago duen beste %50ak jasan du dirusarreraren beherakada 2008 eta 2014 artean. Populazioaren %10 pobreenak %13,4 arteko dirusarreraren beherakada jasan du.

Egoera honetan prestazio sozialen sistemak, eta bereziki RGIak, pobrezia egoeran edo pobrezia arriskuan dauden pertsonen bizi baldintzak hobetu eta egoera honetatik irtetea ahalbideratu behar dute. Prestazio hauek beharrezkoak dira, baina momentu honetan ez dira nahikoak egoera hain larriari erantzuteko eta gainera ez dira modu egokian kudeatzen. RGIa pobrezia arriskuan dagoen populazioaren %72,9ari soilik ematen zaio 2014an. 71.092 pertsona daude benetako pobrezian RGIa jaso arren, EAeko populazioaren %3,3a da, 2008an

baino %68,6 gehiago.

Arrisku egoeran dauden eta prestaziorik jasotzen ez duten pertsonen kopurua gorantz doa. 2008an 47.542 ziren, baina 2014an kopuru honek gora egin du 56.307 pertsonara iritsi arte. Arrisku egoeran dauden pertsonen %27,1a dira. Gabezia honen ondorioz, soldata eta pentsio baxuko pertsona hauen egoerak okerrera egiten jarraituko du.

Alokairu, kreditu, hipoteka edo erreziboen ordainketan atzerapenak dituztenen edo ordaindu ezin dutenen egoerak ere okerrera egin du. Egoera honek EAEn populazioaren %6,2ari eragiten dio, 2008an baino %112,4 gehiago. Pobrezia energetiko bezala ezagutzen denak ere gora egin du. Urteko hilabete hotzenetan etxea tenperatura egokian mantentzeko ahalmenak oso modu esanguratsuan egin du beherantz, hau da 2014an populazioaren %11k hotza pasatu du, 2008an baino %168,1 gehiagok.

Benetako pobrezia jasaten duten familia tipologiei dagokienez, 4 talde dira egoera hau gehien sufritzen dutenak: EB kanpotik etorritako atzerritarren familien %20, lan egoera egonkorrik ez duten 45 urtetik beherako familien %20, lan egoera egonkorrik ez duten 45 urtetik gorako familien % 9,3, eta lan egoera egonkorrik ez duten emakumeak buru dituen guraso bakarreko familien %15. Langabeziak eragin handia du pobrezia egoeretan. Benetako pobrezian daudenen artean, gutxienez familiako kide bat langabezian dagoenen portzentajea %72,8koa da 2014an, 2008an %43,1koa zen bitartean.

Beste datu oso kezagarri bat umeen pobrezia da. 14 urtetik beherako benetako pobrezia egoerak gainontzeko populazioarenak baino azkarrago egiten du gora. 2008an 14 urtetik beherako benetako pobrezian zegoen bitartean, 2014an %11,2ra igo da tasa.

EAEko pobrezia larriaren tasa EB-28ko batez bestekoa baino beherago dagoen arren, aipaturiko datuek kezka izugarria sortzen dute. Ez bakarrik gure inguruan pobrezia jasaten dutenen kopurua gora doalako, prestazio sozialen usteko iruzurraren polemika faltsua zabaltzen den bitartean ikusten baitugu sistema ez dela eraginkorra eta laguntzak nahikoak ez izaten jarraitzen dutela.

5. EBtik KANPOKO ATZERRITARREN ERDIA BAINO GEHIAGO BAZTERKETA SOZIAL EGOERAN DAGO

Eurostaten datuen arabera, Europar Batasunetik (EB) kanpoko atzerritarren %48,7 pobrezia eta bazterketa sozial arriskuan dago, bertako populazioaren %22,8 arrisku egoera berean dagoen bitartean. Datu hau oraindik larriagoa da EBko herrialde batzuetan, espainiar estatuan esaterako, non Batasunetik kanpo jaiotakoen pobrezia eta bazterketa arrisku hau %59,5ekoa den, bertan jaiotakoena %23,3 den bitartean.

EB kanpoko atzerritarren eta bertan jaiotakoen arteko ezberdintasuna izugarria da. EB, bi talde hauen bazterketa arriskuaren tasen arteko ezberdintasuna 26 puntu portzentualetakoa da, eta espainiar estatuan hare okerragoa, 36 puntu portzentualetakoa. Datu hauek erakusten dute EBn, eta hare gehiago espainiar estatuan, EBtik kanpoko populazio atzerritarra dela pobrezia eta bazterketa soziala gehien sufritzen dutenak.

EB eta espainiar estatua, aplikatzen dituzten politika antisozialekin, populazioaren zati handi batek sufritzen duen desberdintasun eta injustiziaren arduradun dira, hare gehiago pertsona hauek EBtik kanpokoak badira.

6. PROPOSAMENA: HERRIEN EPAITEGI IRAUNKORRA

Herrien Epaitegi Iraunkorra, aurrerantzean HEI, 1979an sortu zen, Zuzenbide terminoetan, herriek salatzen dituzten oinarritzko eskubideen bortxaketak sinbolikoki epaitzen ditu instantzia ofizialetan errekonozimendurik eta erantzunik aurkitzen ez dutenean. Sozialki ikustarazten dira genozidioak, atzerritarren inbasioak, ingurumenari, gizarteari eta kulturari eginiko kalteak, eta guzti hau, legelari, sindikalista, ekologista, dokumentalista, elkarte, kaltetu eta beste batzuen baldintzarik gabeko babesarekin. Beti epaitzen dira Nazioarteko Moneta Funtsa edo Munduko Bankua bezalako instituzio finantzieroak, Unión Fenosa, Iberdrola, Coca Cola, Repsol YPS edo BP bezalako enpresa transnazionalak, eta Estatuei ere zeharka eragiten die. Azken hauek eta enpresa multinazionalak enpresa publikoen pribatizazioan, eta eskubide sozialen eta zerbitzu publikoen desregularizazioan izan duten eragina frogatuz.

35 urtean asko izan dira epaitutako kasuak, batez ere Latinoamerikan. Luzeak eta lan handiko prozedimentuak izan dira; lehenik informazioa, frogak dokumentalak eta grafikoak eta testigantzak jasoz; ondoren audientzietan gertaerak, frogak eta testigantzak aztertuz; eta bukaeran, oso ongi landutako eta idatzitako sententziak idatziz. Kasu guztietan ondorioztatu da arduradun eta ardura zehatzak izan direla. Sententzia kondenatorioak. Egia da Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean oinarritzen direla, eredu arauemaile neoliberalak kuestionatuz eta botere politiko eta ekonomikoak alde batera utziz, baina ekintza sinbolikoak izan arren, duten balorea mugagabea da. Ez bakarrik suposatzen duen lanagatik, benetan duten esanahiagatik baino. Elkartu egiten dute. Herrien borrokak lagundu eta arrazoiez betetzen dituzte.

Berriki HEIk 70 transnazional epaitu ditu Mexikon gizateriaren aurkako delituengatik.

Hiru urteko lan gogorrek ondorioztatu du honakoak gertatu direla: bortxaketa estrukturalak, ingurukoak eta zuzenak, bazterketa soziala eta migrazioak, fiminizidioa eta emakumeen bizi baldintza kaxkarrak. Exterminioa, esklabutza, hilketa, deportazioa, populazioaren derrigorrezko lekualdatzea, kartzelaratzea, askatasuna kentzea, tortura, edo pertsonak desagertaraztea bezalako gizateriaren aurkako krimenek arduradunak dituzte. Estatu mexikarra, enpresa transnazionalak, multinazionalen estatu matrizarak eta nazioarteko instituzioak kondenatuak izan dira.

Merkataritza Libreko Tratatuak erlazio zuzena dute mota hauetako ekintzekin. Posible egiten dituzte, korporazio hauen interesak herrien gainetik jartzen dira eta ahuldu egiten dituzte beraien burujabetza arriskuan jartzeraino. Beste gai batzuetan bezala, honetan ere Iparralde Hegoaldetik ari da ikasten. Gaur albiste dira Estatu Batuak eta Europar Batasunaren arteko tratatu (TTIP) posible baterako negoziazioak.

Gertatu denetik ikasi eta ondorioak atera ditzagun.